

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Foru Gobernuak 22 Nafarroa Beka eman ditu Foru Komunitateko tituludunek prestakuntza atzerrian osa dezaten

Nafarroako Nazioarteko Planak 632.287 euro jarri ditu beka horietarako

Jueves, 06 de septiembre de 2012

Foru Gobernuak 22 Nafarroa Beka eman ditu Foru Komunitateko unibertsitarioek ikasketak atzerrian osa ditzaten. Guztira, 632.287,64 euro jarriko ditu neurri horretan tituludunen matrikula, desplazamendu eta mantenuko gastuak finantzatzeko. Beka bakoitza 11.432,28 eta 40.000 euro artekoa da, eta jaso beharreko gehieneko zenbateko moduan ezartzen dira. Ordainketa 2012 eta 2014 artean egingo da, master programa bakoitzaren iraupenaren arabera.



Foru Gobernuaren egoitza den Nafarroako jauregiaren fatxada.

Nafarroa Bekak [Nafarroako Nazioarteko Planaren](#) barnean sartzen dira, eta haien helburua da, unibertsitateko espediente onenak dituztenek master-programa bat atzerriko bikaintasuneko zentroetan egiteko aukera izatea, eta ondoren jasotako prestakuntza eta talentua Nafarroan erabiltzea.

[Azken 22 bekadunak](#) ikasketa-merezimenduengatik egindako hautaketaren ostean aukeratu dira, eta haietatik 13 gizonetako eta 9 emakumezko dira. 21 eta 36 urte bitartekoak dira, eta Nafarroako Unibertsitate Publikotik (10), Nafarroako Unibertsitate (4) eta Espainiako beste zortzi unibertsitate datoz: Valentzia, Kantabria, Euskal Herriko Unibertsitatea, Madrilgo Autonomia, Valladolid, Granada, Zaragoza eta Ramón Llull.

10 beka enpresa-zientzietan espezializatzeko izango dira, 5 zientzian eta teknologian, 4 zientzia sozial eta juridikoetan eta 3 arte eta giza zientzietan. Bekadunek honako ikasketa hauek burutu dituzte: ingeniari (10), LADE edo Ekonomia Zientziak (3), Komunikazioa (2), Zuzenbidea (2) eta Itzulpena eta Interpretazioa (2). Biologia, Biokimika, Historia, Soziologia, Irakasle Ikasketak eta Kriminologia ikasitako bekadunak ere badira.

Esleipendunek master-programak egingo dituzte Erresuma Batua, AEB, Mexiko, Danimarka, Irlanda, Australia, Belgika, Holanda eta Suitzako zentro ospetsuetan.